

*eta apenaz ere
Tolosa'n jayotza.*

*Berriz ere guziyok
gaur egin negarra,
esanaz ¡ai Artola!,
buruz chit azkarra;
Euskal-errian dago
bai zure biarra,
atoz zerubetatik
¡O! gure izarra.*

N ERE AITA MAITE BIYOTZEKO-ARI, ROSARIO ARTOLA-K

*Agur ¡Aitacho! maite maitea
biyotzez zaitut agurtzen,
egi egijaz gau eta agun
etzaitut bada aztutzen;
zuk utzitako ustasunikan
ez dit ezerchok betetzen,
nere begiko malko saminak
ez dira bada legortzen.*

*Ona ziñan eta gaur zeruetan
egongo zera gozatzen,
aingeruchoen kanta politak
dituzula bai aditzen;
ez det merezi bañan Jaunari
diyot bada erregutzen
zure onduan leku chiki bat
otediran aukeratzen.*